

Mundu zaharreko 3 kontakizun

Inazio Mujika Iraola

Idazlea / Escriptor / Escritor

Erregeak datoz

«Aurten ez dira erregeak etorriko» esan zigun aitak. Urtero kontu horrekin zebilen eta nik sinisten ez nuelako plantak egiten nituen anai-arreba gazteek inolako sospetxarik izan ez zezaten. Elurra zegoen lodi bideetan eta zaldiek ezingo zutela Auzunerako aldapa igo. Baina elurra ez zenean, auzunea urruti zegoen, edo Gaxpar min hartuta. Beti bazen zerbait. Baina urte hartan beste arrazoi bat ere bazen pisu handiagokoa. «Osaba Lukas oso gaixo dago eta horregatik ez dira aurten etorriko». Aitak hori esaten zigunean, ni Osaba Lukasen gelara joaten nintzen, arreba txikia eskutik helduta, anaia atzetik, eta hari galdetzen nion. Eta hark, argi unea bazuen behintzat, niri begiz keinu egin eta serio-serio baietz esaten zigun. Lasai egoteko, urte hartan ere etorriko zirela. Zaldiak oso handiak zirela, zango handi-handiak zeuzkatela eta ez zegoela trabarik Sortaldeko gizon haientzat. Arreba orduan lasaitu egin zen. Eta anaiak zer edo zer sumatzen bazuen ere, konformidadea hartzen zuen hainbesterekin.

Nik ordurako banekien erregeak gurasoak zirena, eta urtero Errege goizean, guri ilusioa egiteko, osaba Lukasek ukuiluko astoa askatu eta atari aurretik pasatzen zuen, elurretan oin-arrastoak elur gainean uzteko, eta hartara arrasto haiek Gaxparren txaldiarenak zirela sinetsu genezan. Hori dena banekien ederki asko, baina niri ilusioa egiten zidan plantak egiten jarraitzea. Txikiagoetan, ez niri ez senideei, ez zitzaigun falta izan erregalotxoren bat. Trapuzko panpinatxoa arrebarentzat, egurrez egindako aulkitxoa guretzat... zernahi. Eta erregeak gurasoak zirela ikasi nuenean, amak esan zidan handik hara arropa utziko zidatela. Behar nuena eta kitto. Senide asko ginela eta txikiarentzat izango zela zer edo zer, baina zaharrenentzat, niretzat eta anaientzat, arropa. Anaiak oraindik ez zekien ezer. Errezeloak bazituen, baina jakin, ezer ez. Amak enkargua eman zidan urte hartan esan beharko zitzaiola zerbait, kozkortzen hasita zegoela hura ere. Nik hartu nuen bezala, anaiak ere konformidadea hartu beharko zuela esan nion amari. Lasai egoteko. Nik konformidadea hartu ez ezik poztu ere egin nintzen. Izan ere, helduago sentitzen nintzen eta halakotzat hartzen nindutela ikusteak harrotasunez puzten ninduen. Gure etxean ez zegoen dirua alferrik galtzeko. Senide asko ginen.

Bi zaharrenak kozkortuta, hirugarrena hanka gorria oraindik, arreba oraindik ibiltzen ikasi zaharra ez, sehaskan arreba txikia, arkoi zaharraren tapa aprobetxatuz egindako hala-moduzko sehaskan beste anaiatxoa, aurrekoaren bizkia, eta tripan beste bat zeukan amak. Niri, gainera, ilusioak berdin-berdin segitzen zidan erregeak zein ziren ikasi eta gero ere. Baina urte hartan beste kontu okerrago bat zegoen. Osaba Lukas oso gaixo zegoela.

Osabak argi une askorik ez zuen izaten, zoritxarrez. Burua joaten zitzaion erabat noiznahi. Gauerdian jaiki eta soro barrenetik behera ihes egingen zuen maiz. Bidean harrapatu eta oilagorretara zihoala esango zuen igoal, edota pilota partida zeukala bestela Azurtzin eta hara zihoala, ezin huts egineko partida Saletxeko Migelekin, eskuz binaka. «Zuek esango didazue niri gauerdia den edo ez» esaten zigun, Saletxeko Migel lotan zegoela, gauerdia zela eta esaten genionean. Hobe egingo zuela berak ere erretiratuko balitz.

Saletxeko Migel lotan zegoen aspalditik. Ez genion gezurrik. Lotan eta betiko. Nik ez nuen ezagutu. Osabaren adin modukoa zen, eta hogeitazituela hil zen, gaixotasun arraro batek jota. Baina ezin esango genion hori orduan osabari. Alfer-alferrik zen esaten zitzaion guztia. Horregatik esaten genion lotan zegoela, gauerdia zela eta lotan zegoela Saletxeko Migel. Eta hartara ez genion gezurrik esaten. Bestela ere, maiz etortzen zitzaizkion lagun eta familiarteko hilak bisitan osabari. «Gaur Bernardo etorri duk», esan zidan behin, bere anaia zenduarengatik, «sukaldeko epelera etortzeko esaten zioat eta ez dik etorri nahi tontoa alaeak». «Baina osaba Bernardo hila da» esaten nion nik. «Bai, hila..., uste bai! Zuek esango didazue niri. Etorri, etorri, alkoban zagok, hantxe izkina batean, betizu-betizu». Eta eskutik heldu eta eraman ninduen alkobaraino. Alkobako izkina batean ispilu bat zeukan, eta bere burua ikusten zuen han ageri zela. «Ikusten», esan zidan, «hara non dagoen». Eta ispiluko *anaiari* zuzenduta: «Etor hadi, ba, Bernardo, sukaldean salda bero bat hartuko diagu elkarrekin».

Okertzera egin zuen urte hartan, eta ia ohetik mugitzen ez zela geratu zen. Hala ere argi une batzuk izaten zituen, eta orduan asko sufritzen zuen. Asko. Konturatzen baitzen zein egoera lastimosoan zegoen. Eta garai bateko umorea ahaztu egiten zitzaiola ematen zuen. Umora handikoa izan zen beti osaba. San Pedrotan ere beti aterako zuen zerbait jendea alaitzeko, ahoko soinua jo, antzerkia egin, edo Pello soinu-jolea Linkon bere ahuntzarekin etorri zen urtean bezala. Erretratatzeko makina behorren gainean lotuta etortzen zen hura eta auzo guztiak elkar hartuta antzerki bat egin behar genuela plazan esan genionean, hura erretratuak ateratzen hasi zen oholtzaren barren-barrenetik. Osabak etxeko mandioan hiru makila txar josi zituen tripode modura eta gainean zapata kaxa bat lotuz, piper pota hutsa pega-pega ezarri aurrealdean, zapi beltza ipini zion atzeko partean zintzilik, eta aire. Hura erretratatzeko makina berria. Alde batetik bestera ibili zen gurea, ikusten zuen edozein gerarazi eta erretratu bat aterako ote zion eskatuz. Liztari motza zeukan zintzilik jarrita eta hari tiratzen zion erretratua ateratzeko bezala, eta ondoren txalo lehorra jotzen zuen, pun... Antzerki saioan soinu-jolearen

aldamenean jarri zen osaba, eta Pellok egiten zuena egiten zuen hark ere. Buroa zapi beltzaren azpian jartzen zuela, osabak ere zapipera. Erretratatzeko makinaren kablea sakatzen zuela, hark ere liztariari eragin eta txalo lehorra jo... Pozik zebilen barre ttikiak eginez bere gezurrezko makinarekin.

Gaixotasunarekin umorea eta barre ttikiak ere atzendu egin zitzaizkiola ematen zuen; baina aitak erregeak ez zirela etorriko esan, eta nik arreba txikia eskutik hartuta, anaia atzetik, osaba ohatua zegoen alkobara joan nintzenean ea aitak esaten zuena egia ote zen galdetzera, arrebatxoaren aurrean plantak egiteko, osabak keinu egin zidan begiekin, eta arrebarengana zuzenduz, baietz esan zion. Urte hartan ere etorriko zirela, urtero bezala erreparatzeko, zaldien oin-arrastoei errege eguneko goizaldean. Elur gainean han geldituko zirela urtero bezala zaldi handien oin-arrastoak. Eta garai batean horren aise ezpaineratzen zitzaion barre ttikia egin zuen. Argiunea zuen.

Errege goizean, zalapartak esnatu ninduen. Ohetik entzun nuen marmarra eta negarra. «Lukas, Lukas» entzuten nuen amaren ahotsa. «Zertara atera zara eguraldi honekin, elurretara». «Lukas, Lukas, etor hadi, motel, hire onera» esaten zuen aitak. Korrika jaitsi nintzen eta osabaren gorputza ikusi nuen sukaldeko zizailu gainean luze etzanda. Aldegiteko paretik, agindu zidan aitak, gozorik gabe. Upategian ezkutatu nintzen. Handik sentitu nuen amaren ahots urrutia, bi ate itxik galarazten bazioten ere, esaten: «Gaur inoiz baino argiago esnatu zaigu, eta jaiki egin behar zuela, eta nik ezetz. ‘Zertara jaiki behar duzu, Lukas’, eta hark bizarra kendu behar zuela. Katalinari deitu diot eta ‘isilik egon hadi’ esan dit, ‘hori heriotza aurreko argiunea izaten duna eta’. Bizarra kantari kendu du ispilu aurrean, eta gure ezkutuan, ukuilura joan eta astoa ez du ba askatu! Atarira atera da, pauso batzuk egin ditu intxaur arbola dagoen aldera eta hantxe bertan erori da zerraldo. Elur gainean aurkitu dut, etzanda».

Korrika-korrika atera nintzen, orduan, etxe atarira, eta han aurkitu nituen *Gaxparen* eta bere *txaldiaren* oin-arrastoak elur gainean. Txotx batzuekin hesitu nituen oin-arrasto haiek eta mandioko leihotik egon nintzen haiei begira, anaia eta arreba txikia ondoan nituela, luzaro, bi egun luzez, harik eta lurmendu zuen arte. Pena galanta sentitu genuen, hasieran elur-baltsa, gero lokatz huts bihurtuta, eta geroenean ezer ez zirela ikusi genuenean. Ordurako osaba Lukasen hilkutxa jaitsia zuten Tolosako hilerrira.

Osineta

Hamar urte bete nituenean, gerra etorri zitzaigun Mendikutetik behera, tiro hots gogorrak izan ziren, eta hildakoren bat ere bai. Gure auzunera soldaduak etorri ziren, alde batekoak lehenbizi eta besteakoak gero, eta gurean iraun zuten bitartean, baserrietako mandioetan jarri ziren bizi izatera. Anaiak eta biok bi aldekoekin egin genuen negozioa. Izan ere, gure etxera etorri ziren soldaduei sagardoa saltzen genien upategian. Haiek kankarrotxo bat

ekartzen zuten eta anaiak eta biok etxean egindako sagardoz betetzen genien. Kankarrotxoko bi erreal. Eta ez zuten egarri makala soldadu haiek! Makina bat kankarrotxo bete genien. Jasotzen genien dirua danba-zintzarri batean gordetzen genuen, eta danba-zintzarria mandioko zubipean harri bat mugitu eta gelditzen zen zuloan. Gerra bukatu zenean, karretera egin zuten eta gorde genuen diruarekin, eta gurasoek emandako beste pixka batekin, bizikleta bana erosi genuen anaiak eta biok.

«Orain badaukazue lanera joateko lain» esan zigun aitak. Eta feria egun batean, fabrika batera joan eta lana bilatu zigun. Hamasei urte kunplitu berriak ni eta zertxobait gazteagoa anaia biok hasi ginen Tolosara fabrikara joaten. Gure fabrikan papera egiten zen, eta gu hasi aurretixe tximinia luze bat egin zuten hango keak kanpora bidaltzeko. Hain zen luzea, Auzune kaxkotik ere ikusten baitzen. Eta oso ongi jarria zela esaten zuen aitak, hartara haizeak nondik jotzen zuen ikastea erraza zen oso eta. Ke adarra ezkerretara, hegotik jotzen zuela seinale. Ke adarra eskuinera, iparretik jotzen zuela seinale. Eta belarretarako eta zernahitarako ere ikaragarri estimatzekoa zen laguntza hura. Fabrikak beste lagungarri bat ere ekarri zigun. Hamabitan danba, sirenak jotzen zuen erreleborako, eta aitak aprobetxatu egiten zuen, zernahitan ari bazen ere txapela erantzi eta Anjelusa errezatzeko, bestela pasa egiten baitzitzaion eta. Nola diren gauzak. Eta Anjelusa errezatu ondoren ganaduak gobernatzera. Ganbelak garbitu, azpiak atera, jatena eman eta gu joaterako bazkaltzeko presto-presto egoten zen hura.

Gu goizean seietarako abiatzen ginen Auzunetik behera gure bizikletan. Parrilla gainean atotxoia ogitartekoarekin jarri eta ordu erdiko bidea izaten genuen. Ordu erdi eskuarki ez da ezer, baina nola den izaten da ordu erdi hori. Lehor badago, nahiz hotza izan, erraz pasatzen da bidea; baina bustia bada, eguraldi berdea eta euritsua, orduantxe lanak. Ziztua hartzen zuen bizikletak eta arriskua pendizean behera joateko. Pedalei eragiterik ez, gainera. Eta azkenerako ikasi genuen: Etxe atariko lizarrari arba bat moztu eta parrillari erasten genion, orduan. Hostoak arrastaka eramanez, narran, jaisten genuen aldapa guztia. Haiek egiten ziguten balaztek ezin zutena maldan behera. Lantegi aurrean arba utzi eta lanera.

Hala ere jaitsi erraz egiten zen, baina igotzeko izaten ziren komeriak. Aldapa osoa behintzat ezta pentsatu ere, bizikleta gainean igotzerik. Baina guretzat ez zen batere penagarria izaten. Koadrilatxo bat juntatzen ginen bidean lagun egiteko eta kontu kontari igotzen ginen, batzuetan lantegiko kontuak eta besteetan etxeoak hortxe gurasoak haserretzeko moduko atzerapenarekin. «Ibiliko zineten orain ere erasian emakumeak bezala txutxu-mutxu» erretorika segurua izango genuen etxeratu orduko. Aita gu iritsi zain-zain egoten baitzen ukuiluko lanei errematea emateko.

Baina gu lanetik gentozen eta ez genuen batere presarik izaten. Bagenekien-eta, etxera iritsi eta berriz ere lana izango genuela. Izaten genuen gainera gure gustuko txoko berezi bat, bide erdian gutxi gorabehera, atsedean hartzeko. Kaminotik pixka bat atera eta bide bihurri bati jarraituz gero, segi-

tuan ginen Osinetan. Osinetan Sorginerreka deitzen genion errekatxoa jaiotzen zen. Eta Albizturko eta Tolosako lurak banatzen zituen haren Tolosarako bidean. Tolosan, berriz, bat egiten zuen Oria ibaiarekin.

Osinetan, izenak berak esaten du, osin zulo handi bat zegoen. Hantxe, azpitik gora pill-pill-pill ura botatzen duela, irakiten ari den lapikoak bezalaxe, hasten zen Sorginerrekaren ibilbidea. Hura zen Sorginerrekaren iturbegi xumea, eta segituan harkaitz arte batean ezkutatzen zen eta hurrena, berriz ere, pixka bat beheraxeago, zabalgunee batean agertzen zen. Bere jaiotokian errekatxo hau den baino ugariagorik, ez dut uste aurkituko den Gipuzkoa guztian besterik; ezta, bera hainbat bidean hain garbi eta hotz jaisten denik ere. Tolosara iritsi arte ez da arretzen behintzat, haitz bizien tartean datorrelako. Amuarrainik ez zen izaten, ordea, aldapa pikoa zegoelako, eta urak kiribilkolika jaisten zirelako, bizkor-bizkor.

Gu iturbegira iritsi eta hantxe arboladiaren pean, bizikletak nolnahi botata utzi, belar gurian eseri edo hortzaz gora belar-izpi bat hortz artean jarrita, atsedean hartzen genuen. Gero baten batek kontua ateratzen zuen, eta iturbegiaren jarioaren parean, makur-makur eginda sartu ahala ur hartzen genuen ahoan, tantarik galtzera utzi gabe. Eta esaten genuen orduan, Sorginerrekako urak gure aho barruan genituela. Ura ikaragarri hotz zegoen, eta hortzetan dardara eragiten zigun, hozkia sentitzeraino. Baina guk bertan agoantatzen genuen mugitu ere egin gabe. Bat, bi, hiru... hamar kontaktzen genuen ozen. Hogei kontaktu arte irauten zuena ez zen edozein izaten. Sorginerrekako ur guztiak hogeia segundoz aho barruan edukitzea... horixe gure ahalegin guztia.

Behin, anaia lantegi horretan ari zela, hogeita bost kontaktzera iritsi gintzaizkion eta hark jarraitu egiten zuen, ahoko zuloa jarioaren paretik erretiratu gabe. Brageta ireki zuen orduan, eta zakiltxoa ateraz, pixa eginean hasi zen. Barre algara ederrak egin genituen ikuskizun eder hari begira, zulo batetik sartu eta bestetik atera... hura zen hura gauza! Handik hara, harro-harro zegoen gure anaia, eta guk mireshenez begiratzen genion, Sorginerreka bere gorputzean barrena ibili zelako.

Hurrengo egunean, fabrikara bidean, Tolosako ibai zabala ikusten genuenean, han antzematen genituela iruditzen zitzaigun Sorginerrekako ur haiek, besteetatik bereizi zihoazela, eta momentu batez, ibai hura guztia ahoan eduki genuelako harro-harro joaten ginen lanera.

Joakin zaharra

Geroztik makina bat aldiz egon naiz bakarrik, baina, gaztetan izua nion bakarrik egoteari, eta zer esanik ez ilunpeari. Behin edo behin lantokian uste baino luzeago aritu, eta lagun guztiak auzunera igoak baziren, ilun-bistan igotzea tokatzen bazitzaidan, ikarak airean igotzen nuen aldapa. Hasieran ez neukan arazorik, Tolosako argiek argi egiten zidaten-eta, baina azken partean

kaminoa arboladi batean sartzen zen, lehendik argi askorik ez, eta ilundu egiten zen ikaragarri. Arboladiaren barren-barrenean, kaminotik atera eta Osine-tarako bide bihurria hartzen nuen. Han Sorginerrekako urak ahoan edukiko nituen pixka batean eta bi harri-kozkor handi bilatuko nituen. Haiek esku banatan hartuta ekingo nion berriz kaminoari, arboladi ilun hartan gora, harrik eta goenera atera eta etxera iristen nintzen arte. Ezker-eskuin begiratzen nuen espantuka eta bide ertzeko sasiak bizirik zeudela iruditzen zitzaidan niri. Inoiz, itsu-itsuan, bota izan nion sasiari harri haietako bat, mamutzarren bat zebilelako ustean. Almitz belarrak noiznahi mugitzen ziren zirt-zart, ziraunen bat, sataina edo sagutxoren baten ibilbidea salatuz. Isiltasun hartan, ordea, edozein mugimendu zen susmagarri niretzat. Harri-kozkorak beti izaten nituen prest orduan. Etxera iritsitakoan, atari ondoan uzten nituen pila batean intxaur arbolaren azpian. Ume beldurtia nintzela esaten zidaten, eta nik orduan halaxe pentsatzen nuen neure artean: beldurtia, bai, gure etxe atariko intxaur arbolaren azpian harri-pilaren altura nola, hartarainokoxeko beldurra pasatu diat neure denboran.

«Beldurra, nik pasatu nian Don Manuelekin azkeneko gerran». Hala esaten zuen auzoko Joakin zaharrak. Eta *azkeneko gerra* ez zen guk pasatu berria genuen huraxe, aurreragoko bat baizik. Joakinentzat hura zen azkeneko gerra. *Don Manuel*, Santakruz Apaiza zen, eta ni gaztea nintzen garaian asko geratzen ziren harekin ibilitako mutilak. Joakin zen haietako bat. Beldurra, leku askotan pasatu omen zuen, baina, kontatzen zuenez, Enderlatsan pasatu zuen beldurra benetakoa, karabinero muturbeltz haiei aurre egiten. Moz-taka eta lodia zen Joakin. Eta nik ezagutu nuenean, ez zen gauza oinez hamar metro segidan egiteko. Baldartuta zegoen. Baina gazte garaian fandango-lari bizkor askoa izana omen zen. Nik bere gurdian ezagutu nuen. Inora joan beharrik bazuen, ilobaren batek lagunduko zion harentzat propio egindako zurezko gurdixora igotzen; gurtetxean eseriko zen, zango moztaka haiek zintzilika, eta tabakorria paperean bilduz, han eramango zuten bi iloben artean *inora*. Tabernara, alegia.

Eta tabernan, sesioa. «Joakin!», irribarre burlosoz espantu egingo zioten bertan zeudenek... «Zer nahi duzu jakin?», erantzungo zuen betiberdin. «Konta ezazu Txirrita isildu zenueneko hura». «Bai, zertarako? Zuek ez duzue sinisten, baina nire aurrean Txirrita bera ere isildu egin zen bertsotan. Gehiago izan ni nonbait, eta... isildu egin behar hark. Tolosako Zerutxikin izan zen...» eta kontatzen hasiko zen, eta bukaeran ez zuen ahaztuko esatea, Txirritak isildu beste erremediorik izan ez zuenean, txapaka nola egin zion bizkarrean, eta nola esan zion «Joakin, zu zara bertsolaria, zu». Eta azkeneko *zu* hura esaten haizatu egiten zen. Harrotu. Eta ezin eramana zuen, orduantxe, harro puntu horrekin zegoelarik, jendeak barre egitea. «Zuek gazteak zarete, baina galdetu, galdetu dakienari, esango dizue hala izan zela... Bertsolari ona izango da Txirrita hori, baina arrazoirik gabe gelditu zen nire aurrean. Nik isilarazi nuen Txirrita!». Orduan baten batek barre karkailaz esango zion isildu ez, aspertu egingo zuela. «Aspertu!». Orduan Joakin bere

bertso traketsen bat kantatzen hasiko zen eta barre algarak Altzatik ere entzungo zituen Txirritak.

Beste konturik ez zuen Joakin zaharrak. Bertsoa eta ardoa. Ardoz karga-karga egiten zenean, ilobei deitu eta han eramango zuten tabernatik etxera bueltan gurdi gainean hartuta, fardo bat balitz bezala, bertso kantari. Joakinen mozkorrak ez ziren erdimerdi horietakoak, ezta mingaina tilipitit-tilipitit ibiltzen den horietakoak ere. Joakin zahagi egiten zen. Ardoa bera baino mozkorragoa zela esaten zuen gure aitak, baina bihotz handikoa zela, on puska bat. Behin, ordea, tabernan zeuden bere moduko bi mozkorrontzi gaiztok elkar hartu zuten, eta bidean Osinetako putzuaren inguruan itxaron zioten arboladian ezkutatuta. Egun hartan ere karga-karga eginda eta bertso kantari omen zekarten eskorgaren gainean bi iloben artean. Osinetara iritsi zirenean, elkar hartutako bi bilau gazte haiek bidera atera eta ilobei mehatxu egin omen zieten, alde egiteko paretik, ez bazuten bertan seko gelditu nahi. Iloba haiek ni baino zertxobait zahartxoagoak, baina mutil-kozkorrek artean, eta gazte sasoikoak bilauak; hanka egin omen zuten izututa, osaba putzu zuloaren ertzean utzita. Hala ere, ez omen zen asko estutu Joakin zaharra. Konturatu ere ez hura. Hain zegoen total eginda.

Ni fabrikatik bueltan nentorren bakar-bakarrik bizikleta hartuta, eta zuzen-zuzenean Osinetara nindoan, halakoetan ohi nuen bezala, harri-kozkorrek hartzera; baina hara iritsi aurretik zalaparta arraroak entzun nituen, eta, Osinetara gabe, bertan makurtu eta bi harri-kozkor handi hartu nituen bide bazterretik. Izuak berak eragiten duen jakin-minak bultzatuta inguratu nintzen zalaparta zetorren aldera. Kontuz-kontuz eta sasi artean itzalgaizka iritsi nintzen, eta han ikusi nuen Joakin zaharra gurditxoaren gainean etzan eta, zakila aterata, goraka pixa eginean. Ez zion hala ere bertso kantatzeari utzi.

Nire ezkutalekutik atera eta «Joakin!» deiarar egin nion, ez zen hura deskuidatuko: «Zer nahi duzu jakin...?», erantzun zidan orduan ere. Zer ote zebilen han bakar-bakarrik, eta ibili-ibili gutxi egiten zela hura. «Egon, motel, egon nagok hementxe... Ume demonio hauek ezkutatu zaizkidak nora edo hara eta ez diat atarramenturik ateratzen, ezta pixa eginerako ere». Prarak busti-busti eginda zeuzkan hankarte parean. Neure burua eskaini nion etxera laguntzeko... eta eskertuko zidala horixe egiten banion... «solamente ez habil hi indarrez sobrate». Nik, heldu, heldu nion eskorgari heldulekueatik, baina egin ahalak eginda ere, ezin hamar metro segidan egin. Balantza egiten zidan, eta iraultzeko arriskua zegoen. «Izan ere, pisua zaukaat, e, gazte!, ederki kostatakoa duk ba, hori ere...». Eta barre egiten zuen lasai. Etxera joateko eta ilobei hots egiteko esaten zidan. Bi laguneren artean aise eramango genuela. Baina nik beldurra neukan Joakinen etxera bakarrik joateko. Nahiago nuen Joakinekin joan. Estutasunen bat tokatuz gero, hark lagunduko zidanarengatik, egia esan... Baina ikarak halako kizkurak izaten ditu, eta ezinean bada ere, beste hamar metro probatu behar nituela. Baina alferrik. Gaua gainean zen eta ezin nuen etxeraino fardel harekin. Segituan nentorrela esan nion. «Lasai joan, gazte», esan zidan, «ni hementxe egongo nauk, inora

mugitu gabe» eta bertsotan-edo jarraitu zuen, bere boz arriztutakoaz. Beste harri-kozkor pare hartu eta Joakinen etxe aldera abiatu nintzen.

Ni urrutiratu ahala ere, haren kanta-hotsa sentitzen nuen jabalduz zihoala, baina bidean dagoen gereziodo japoniarraren parera iritsi nintzelarik, orbel hotsa eta zalaparta sentitu nituen Joakin utzi nuen lekuan. Ez nuen bertso hotsik entzuten gehiago. Algara batzuk, bai, baina ez ziren Joakinenak. Joakinen iruditu zitzaidan garrasi bat gero: «Zer ari zarete, gazteak!?» eta ur txaplasta bat hurrena. Harri zapal batek uraren kontra egiten duenaren antzekoa. Besoak tenk jarri nituen eta harri-kozkorrak pronto-pronto neuzkan eskuetan, baina atzera bueltatu beharrean, korrika batean joan nintzen Joakinen etxera. Han ilobekin topo egin nuen, eta hirurok bueltatu ginen Osinetara.

Osinetara iritsi ginenean, putzuan etzanda aurkitu genuen Joakin. Mugitu ere apenas egiten zen. Nahikoa lan bazeukan burua uraren gainetik ateratzen eta arnasa hartzen. Sorginerrekako urak ahoan edukiak zituen makina bat denboran. «Ez duk hau jenero ona» esaten zuen galtzarbetatik heltzen ari ginela. Kostatu zitzaigun galanki handik ateratzea, baina noizbait iritsi genuen hori ere, eta gurditxoan, fardel bat balitz bezala, botata, arin-arin eraman genuen etxera. Han koinatak arropak aldatu-eta egin omen zizkion berehala, baina handik alborengoa harrapatu eta hartatik hil zen. Bi aste ere ez zuen iraun.

Hil aurretixe, nortzuk etorriko bisitan, eta putzura bota zuten bi gazte bilau haiek, broma bat besterik ez ziotela egin nahi izan eta barkamena eskatzera. Eta barkatu ere egin omen zien Joakinek. Hortik kontuak atera nolako on puska zen agurea. Hala esaten omen zien gazte bilauei: «Baina nik zer egin dizuet zuei horren tratu txarra emateko!». Eta gazteek bueltatuko zela bere onera, oraindik Txirrita arrazoirik gabe utzi behar zuela makina bat aldiz. Eta Joakinek orduan, behin uraren eran alde eginez gero bueltatzea zaila zela. Handik berehala hil zen, gutxi probatutako jenero hartatik ase hartuta.